

## Giro ezin hobean egin zen fakultateko ikasle ohien topaketa pasa den larunbatean

2016/04/25

Pasa den larunbatean, hilak 23, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ikasle ohien topaketa egin zuen Eskoriatza eta Aretxabaletako campusetan. MUKide ikasle ohien elkarteak antolatutako ekitaldira hurbildu ziren fakultatean ikasitako 26 ikasle ohi. Aurtengo ekitaldira deituta zeuden 2005-2006 ikasturtean ikasketak bukatutakoak eta 2000-2001, 2001-2002 eta 2002-2003 ikasturteetan egresatuak.

Ekitaldia hasi zen goizeko 11:00etan, Begoña Pedrosa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoarengi etorriarekin.

Ondoren, ikasle ohiek aukera izan zuten beraien ibilbide pertsonal eta profesionalari buruz hitz egiteko eta fakultateak dituen bi campusak bisitatzeko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako. Topaketa luntx batekin bukatu zen 14:30ak aldera.

Larunbatean bildutakoak honako ikasketak egindakoak ziren:

- Irakasletza diplomatura. Hezkuntza berezia espezialitatea.
- Irakasletza diplomatura. Haur hezkuntza espezialitatea.
- Irakasletza diplomatura. Atzerriko hizkuntza berezia espezialitatea.
- Humanitateak eta enpresa lizentziatura.
- Enpresa proiektuen zuzendaritza masterra.

Hemen ikus daiteke eguneko argazki galeria:



Larunbatean bildutako ikasle oihak irakasleekin.

